

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuak kideen ondare-aitorpenak gaurtik aurrera Interneten argitaratuta izango dira

Gobernuak goi-karguen aitortpenak argitaratzeari buruzko eztabaida parlamentarioa sustatuko du

Viernes, 16 de octubre de 2015

Nafarroako Gobernuak [webguneak](#) Gobernu berriko kideen ondare-aitorpenak argitaratuko ditu gaurtik aurrera; hala, gardentasunari buruzko foru-araua epearen barnean beteko du eta, laster, gainerako goi-karguenak jasoko dira bertan.

Hala ezagutarazi dute gaur, prentsurrekoan, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumontek eta Herritarrekiko eta Erakundeeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló kontseilariak.



Gobernuko bilkura baten irudia.

Ekainaren 21eko Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak ezartzen duenez, kargu berriek beren ordainsari, jarduera eta ondasunen datuak aurkeztu beharko dituzte Jardueren gaineko Erregistroan eta Ondare Ondasun nahiz Eskubideen Erregistroan; horretarako, izendatzen direnetik, bi hilabeteko epea ematen zaie. Gobernu berriko arduradunek baldintza hori epearen barnean bete dute. Nolanahi ere, datuak ez dira gaur arte argitaratu, Erregistroak emandako informazioa berrikusi eta egiaztatu behar baitu.

Gainera, Gobernu Irekiaren atarian, aurreko legealdietako goi-karguei lotutako datuak agertzen dira, gardentasunari buruzko legea ere betez. Gogora ekarri behar da, joandako Gobernuetako goi-karguek aipatutako aitortpena kargua utzi eta bi hilabeteko epean aurkezteko betebeharra dutela.

Nolanahi ere, arauak ez du erabakitzen, alde batetik, goi-karguek Interneten aitortpenak argitaratzeko zer epe duten, eta bestetik, goi-kargu ohiei lotutako informazioak zenbat denboran egon behar diren sarean ikusgai. Arrazoi hori tarteko, Nafarroako Gobernuak eztabaida parlamentario bat sustatuko du kasu horietan zuzendu beharreko epe nahiz betekizunak zehazteko asmoz.